



3 UDALBATZARRA Gizartearen intereserako gaiak eztabaidagai

Maiatzeko ohiko udalbatzarraren, besteak beste, erraustegiaren ingurumen baimena, Diru-Sarrera Bermatzeko laguntza edo Lasarte-Oriako aparkalekuen arazoa jorratu ziren. Hauek alderdiek aurkeztutako mozioak izan ziren eta eztabaida ugari izan zen. Hala nola, EH Bildu edo Lasarte-Oriak Ahal Du taldeen mozioak bertan behera geratu ostean, PSE-EEK aurkeztutako ordezkotako mozioak onartu ziren.



Aurkezpenera hurbildu ziren herriko elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak, herritarrek eta zortzikoteak talde argazkia atera zuten Euskararen 9. Maratoiko irudiarekin, armairua.

8 INGURUMENA Energiaren Kontsumo Jasangarriaren astea antolatu da

Hurrengo astean, 'Energia kontsumo jasangarriaren astea' antolatu dute Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean. Asteaz zehar, Manuel Lekuonan hitzaldiak izango dira. Landaberri DBHko ikasleek ekintza berezia egingo dute, Usurbil Lanbide Heziketa Zentrora bisita egin eta argazkiak aterako dituzte larunbatean Antonio Mercero gunean erakusketa jartzeko. Larunbatean, Energia feria antolatu da Okendo plazan.



Lasarte-Oria armairutik irtengo da

Euskararen Maratoiak herritarrei lotsa kendu eta euskara erabiltzera gonbidatuko ditu

Euskararen 9. Maratoia urriaren 22 eta 23an izango da. Lasarte-Oriako euskalgintzak protagonismo berezia izango du aurten. Lehenengo maratoiko erronka euskararen jaialdi handia bihurtu da eta beste apustu bat dute antolatzaileek, 40 egunez euskaraz.

Lasarte-Oriako elkarte ezberdinetako ordezkariak gain, Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren asteazkenean Euskararen 9. Maratoiaren aurkezpenean.

Jesus Zaballos alkateak eta Jon Antxordoki Euskara Batzorde buruak Lasarte-Oriaren aurten euskalgintzaren barruan urteurrena ospatzen duten elkarte eta erakundeak zoriondu zituzten.

Zaballosek gainera herritarrek zoriondu zituen, "denon artean bide zail bezain polita, eredugarria ere bai esango nuke, egiten ari gara. Gure hizkuntza gure artean ulertzeko hizkuntza baita gero eta gehiago, eta pixkanaka-pixkanaka elkarrekin bizitzeko hizkuntza ere egiten ari baikara".

Antxordokik, "erreferentzia bat bihurtu da Lasarte-Oria Euskal Herri osoko euskalgintzaren barruan", azpimarratu zuen.

Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakariak ere hartu zuen hitza. Duela lau urte, 8. Maratoia amaitzean Lasarte-Oriaz harro zegoela esan zuen eta harrotasun horrek irauten duela adierazi zuen. Honetaz gain, herritarrek euskara erabiltzera animatu zituen.

Irten armairutik

Aurtengo leloa 'Irten armairutik' eta irudia, amairua, aurkeztu ziren.

Honetaz gain, 40 orduetan dinamizazio lanak egingo dituen zortzikotea ere jakitera eman zen: Joxe Mari Azkonobieta, Agus

Mujika, Joxe Mari Agirretxe, Rebeka Garzes, Estitxu Garmendia, Mikel Izquierdo, Enara Iregi eta Oihana Fu Otaegi.

Gai hauei buruz, informazio gehiago barruko orrialdeetan aurkituko duzue.

Erronka berria

Eta hau guztia gutxi ez balitz, Euskararen Maratoiko 40 orduak gaitzuta, herriari erronka berri bat botako diotela jakinarazi zuten, 40 egun euskaraz.

Erronka honen arduradun EHUKo Pello Jauregi izango da eta ikerketa bat ere eramango du aurrera. Hau Foru Aldundiak babestua izango da.

Joxean Amundarain Foru Aldundiko Euskara Normalkuntza zuzendaritzako kideak Lasarte-Oriaren euskararen alde lan handia egin dela azpimarratu zuen. Urte hauetan guztietan, Udal Euskara Batzorde edo Ttakun kultur elkarte hainbat proiektutan bidelagun izan dituztela ere jakitera eman zuen eta

Udaleko Euskara Zerbitzuak proiektu berri hau aurkeztean dudarik gabe babestuko zutela erabaki zuten.

Abestia eta bideoklipa

Aurtengo abestia herriko pailazoan 'Egiozu euskaraz' abestia da. Pailazoek Maratoia utzi eta zortzikoteak abestu eta dantzatuko du 40 orduetan zehar aurreko maratoietako abestekin batera.

Abestiaren bideoklipa ere aurkeztu zen. Honetan egunero suertatu daitezkeen egoerak ikusten dira.

Maratoia sarean

Hau guztiaz gain, aurkezpenean aipatu zutenez, www.euskararen-maratoia.eus webgune berritua ere martxan dago. Bertan 9. Maratoiko informazio guztia txertatzen joango dira, baita izenemateak ere. Sare sozialetan ere jarraitu ahalko da Euskararen Maratoiko atzerako kontua.

Amairan, guztiak dantzan jarri zituen zortzikoteak.

2 mó markako
betaurreko
gama altuko
progresiboak
+
eguzkitako
progresiboak

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

197€

Gure betaurreko
guztiak 2016
bildumakoak dira

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Konsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Neure kabuz



Asier Odriozola
Itxurakeria

Laster dugu gainean ez hauteskunde kanpaina bat baizik eta pare bat, bata ekainean eta bestea udara ostean. Laster beraz berriz ere lider ezberdinen eta alderdi ezberdinen antzeppen eta itxurakeria. Beti eman dit atentzia nola hainbeste zaintzen dituzten euren inguruko iritzia itxura bat ematearen eskutik eta nola heltzen dioten ideia sorta bati malgutasunik gabe. Inoiz pentsatu izan dut egunen batean politikagintzan sartuko banintz ez nukeela nire ekintza politikoa defendatuko gezurrak erabiliz. Egia esango nuke nahiz horrek suposatu onartzea gauzak ez ditudala ongi egin. Horregatik, ez nuke balioko jarduera horretarako. Itxurakeria handiegia.

Beste arlo batzuetan ere izaten dena: gaur ospakizun bat dugu eta batzuk ez dakite nola jantzita joan bertara. Itxura kontuek ze lan ematen dizkiguten. Edo ze nortasun ahula dugun! Zergatik ez gara gure egia-ekin jazten? Zergatik ez nork nahi duen bezala? Ez goazela bat bestekin? Bada euskal esaera bat asko gusatzatzen zaidana: alla kuidados!

Zorion agurrak



Sara eta Eneko
ZORIONAK bikote zuen bosgarren eta bederatzigarren urteurrenean. Muxutxo asko familia guztiaren partetik.



Eneko
Zorionak maitia!!! 8 Muxu erraldoi, maite zaitugun guztien partetik. Oso ondo pasa zure egunean.



Luka
Zorionak Luka, zure lehenengo urtebetetzeari! Muxu bat familiaren partetik.



Asier
Zorionak Asier zure familiaren partetik!



Maitena
Zorionak! Aita ama eta familien partetik, ondo pasa zure urtebetetzeari.



Izan
Zorionak zure 9. urtebetetzeari Izan, txapeldun! Muxu potolo bat familiaren partetik, asko maite zaitugu.



Iraia
Zorionak Iraia, zure 4garren urtebetetzeari. Familiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Jaiotzak Heriotzak

Heriotzak

- Manolo Carrasco Iglesias, maiatzaren 1 lan, 86 urte zituela.
- Javier Albeniz Berruete, maiatzaren 10ean, 61 urte zituela.
- Jose Maria Martin Guizarro, maiatzaren 7an, 78 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 13 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 14 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 15 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 16 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteartea, 17 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 18 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 19 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Bi marrako garajea alokatzen dut, oso handia, 15 metro koadro ingurukoa. Prezioa: 55 euro hilero. 943 37 61 15.
- Garaje marra alokairuan, 11 metro karratu. Donosti Etorbidean, sartzen erraza. 687 271 288.

Salerosketa

- Bidaietarako sehaska, hamaka, parketxo bat eta 9 eta 15 kg. arteko haurarentzat kotxerako aulkia salgai. Prezioa negoziagarria. 673 256 566.
- Gazte-logela salgai. Armairua ispilarekin, 1,05 m. ohea uda eta neguko koltxoiarekin, mesanotxea eta sinfonierra. 450 euro. 673 256 566.

Lan-eskaria

- Pertsona adinduak, zein haurrak zaindu edo

- garbiketa lanak egiteko prest, externa modura. Esperientzia dut. Ruth, 6177 888 854. Pertsona adinduak, zein haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko neska eskaintzen da. Pertsona adinduak zaintzen esperientzia du. Lanean hasteko prest. 647 743 333.
- Zaintzan egingo nuke lan. Esperientzia eta ordutegi malgua ditut. 631 485 274.
- Arratsaldetarako, gauetarako edota asteburuetarako lan bila nabil. Ume edota nagusien zaintzan eta garbiketan. 690 146 067.
- Etxean edota zaintzaile modura lan egiteko prest. Erreferentzia onak ditut. 648 90 67 82.
- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena, 673 25 65 66.
- Zaintzan edota garbiketan egingo nuke lan. Francisca, 647 27 61 33.

- Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna moduan edo gaez. Harremanetarako, 688 812 344.
- Barneko edo kanpoko langile bezala egingo nuke lan, garbiketan edota zaintzan. Harremanetarako, 617 76 14 23.
- Barneko langile bezala aritu nahiko nuke, zaharrak edota umeak zaintzen. Norma 620 400 181.

Lan-eskaintza

- Zaintzan eta garbiketan lan egin nahiko luke ten bi pertsonen bila nabil. 943 451 149.

Larrialdi telefonoak


Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Eztabaida handiko gaiak

Ordezko mozioak onartu ziren nagusiki

Maiatzeko ohiko bilkura egin zen asteartean. Honetan alderdi ezberdinen mozioak landu ziren. Eztabaida handia sortu zuten hainbatek, hala nola, erraustegiaren ingurumen baimenaren erreklamazioak edo Diru-sarrera Bermatzeko Laguntzen gaiak.



Erraustegi eta DSB Laguntzak izan zireneztabaida gehien sortu zuten gaiak.

TXINTXARRI

Gizartean pil-pilean dauden gaiak landu ziren astearteko Udalbatzarraren, baina lehenik aurreko batzarretako aktak onartu ziren.

Jarraian, alderdi ezberdinek aurkeztutako mozioak eztabaida zizutuzten mahaiari.

Talde sozialistak eskatuta Ekuadorren izandako lurrikaran Euskal Fondora 5.000 euro bideratzea onartu zen. Era honetara, Euskal Fondoak 'Save the children' erakundearen eskaerari erantzun dio hein batean eta Ekuadorreko haurrei lagunduko die.

EH Bilduk erabaki honen irizpideei buruzko bere zalantzak agertu zituen.

Erraustegiko erreklamazioa

EH Bilduk bestalde, bi mozio aurkeztu zituen. Batetik gogora ekarri zuen erraustegia eraikitzeke pauso bat gehiago eman zela apirilaren 11ean, Ingurugiroko Sailburuordetzak ingurumen baimena eman baitzuen Aldundiari.

EH Bilduk Lasarte-Oriako Udalarri errekurtso horiek aurkezteko eskaera egin zuen batzarraren. Hilabeteko epea dute erakundeek gorako errekurtsoa jarri ahal izateko eta honen berri komunikabideetan izan dutela salatu zuen.

EAJk ingurumen baimena proiektuaren birmoldaketaren ostean eskaini dela aipatu zuen eta erreklamazio hori jartzeko oinarria zein izango zen galdetu zion EH Bilduri. Gainera, "zuen diskurtsoa oinarritzen duzuen azterketa estatistikoa besterik ez da" ere azpimarratu zuen bere azalpenetan.

Mozioa hau ez zen aurrera atera PSE-EE, PP eta EAJren aurkako bozka izan baitzuten.

PSE-EEK, udal teknikoaren gomendioari jarraiki, aurka bozkatu zutela jakinarazi zuen. "EH Bilduren planteamendua egokia ez dela" aipatu dute. Izan ere, 2009 eta 2010ean ere Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan egon baitziren, baina orduan ez zen

ezer lortu. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari eskaera bat egingo zaio Lasarte-Oria gai honetan interesdun modura kontuan hartzeko. Hori lortu ostean, errekurtsoa jarriko da.

DSBL

EHBilduk Diru-sarrera Bermatzeko Laguntzak ez kentzeko proposamena ere jarri zuen mahai gainean, baita hauek desagertuz gero Udalean laguntza lerro bat sortzearena ere.

Bestalde, alderdi abertzaleak Aldundiak erabilitako azalpenean "hizkera xenofobia" erabiltzen dela salatu zuen.

EAJk ez dela murrizketa azaldu zuen, birmoldaketa baizik. "Laguntza horrek ez ditu helburuak betetzen. Erabakia azterketa bat egin eta alkate eta hainbat erakundekin bildu ostean hartu da. Horren ordez, Elkar Ekin plana jarriko da martxan. Hau garatzen ari dira." Honetaz gain, hizkerari buruz, "errealitatea da laguntza horek dei efektua egin duela eta etorkin asko etorri direla, ez da hizkera xenofobia".

PSE-EEK Euskadiko lurralde guztietan egon beharko lukeen laguntza dela eta "laguntza hori subjektiboa eta aurrekontuetan oinarritua ez dagoena izan behar dela" babestu zuen.

Hau ez zenez onartu, PSE-EEK ordezko mozioa aurkeztu zuen eta EHBilduren aurkako bozka izan ezik, beste guztien onspena izan zuten.

Honetan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzari Diru-sarrera Bermatzeko Laguntzen azterketaren ondorioak azaldu eta erakunde eta herritarren onspena bilatzea eskatzen dute, baita Foru Aldundiari Elkar Ekin lehenbailehen martxan jartzea ere.

Aparkalekuen arazoa

Azkenik herritarren aparkaleku beharra landu zen. Honetan EH Bildu eta PSE-EEren arteko transakzio-mozioa onartu zen aho batez.

Era honetara, aurreko legealdia egindako azterketa aintzat hartu, teknikoki azter-

tu, herritarrei haien proposamenak egiteko eskatu eta ostean, plan berezi bat egingo da irtenbidea bilatzeko.

Kirol eskaintza "handitu"

EAJk herriko kirol eskaintza areagotzeko asmoz Udala eta herriko gimnasio eta hipikarekin hitzarmen bat egitea proposatu zuen eta aurrera atera zen EAJ, PP eta PSE-EEren aldeko bozkekin. EH Bilduk aurka egin zuen eta Lasarte-Oria Ahal du abstenitu egin zen.

Era honetara, udal instalazioetako bazkideek jarduerak egin ahalko lituzkete tarifa murriztuekin, kirol eskaintzan duplizitateak saihestuko lirake eta instalazioak berritzeko inbertsioak murriztu. Herriko kirol taldeek ere erabili ahalko lituzkete.

Gainera, proposamen hau Buruntzaldea bailarara zabaltzeko aukera baloratzeko ere eskatu zuten.

Somoto

Bestalde, Lasarte-Oria Ahal du hautesle taldeak Somotora justifikatu gabe bidali zen diru kopuru bat erreklamatzeko eskatu zion Udalarri, baina ez zen onartua izan. PSE-EEren mozio alternatiboa bai, ordea.

Honen bitartez, Somotora justifikaziorik gabe bidali eta preskribatu gabe dauden laguntzak bueltatzeko eskaera egingo da.

Atsokabar erresidentzia

Gai hauen guztien ostean, galderak eta erreguak egiteko aukera ere izan zuten alderdiek.

Atsokabar erresidentziako negoziatioek sortu zuten jakin-mina bai alderdi, baita herritarrengan ere.

Alkateak Foru Aldundiak erresidentzia bere egingo duela eta gainera, honetan plazak handitzeko lanak egingo direla jakitera eman zuen. "Lizitazioa berez, ekainean egin behar zen beste erresidentziekin batera, baina azken aldaketa hau dela eta ez da horrela izango". Gainera, lan berrien plana diseinatzen ari direla jakitera eman zuen.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Elkartasun Jaialdia larunbatean

Elebeltz Topagunearen aldeko egitaraua prestatu dute larunbat honetan. Goizetik gauera ekintza andana antolatuta ditzuzte.

Goizeko 11:30ean hasiko da jaialdia. Kantujira egingo dute Porrotx eta Xumelarekin batera. Haur, guraso eta gazte guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. 13:00etan Konpostelako Solfa abesbatzari ongi etorria egingo diote Okendo plazan eta kantaldia egingo dute denek batera.

Bertsobazkari beganoarekin beteko dituzte tripak ondoren, 14:30etan. Ainhoa Agirreazaldegia, Unai Muñoa eta Izarne Zelaia bertsolariak arduratuko dira bazkalondoa girotzeaz. Arratsaldean, 17:30ean, Tony Magoak txikiak liluratuko ditu bere magiarekin.

19:00etan hasiko dira kontzertuak, eta Pelax taldeak eskainiko du lehenengo emanaldia. Country, rock, blues eta punk doinuak uztartuko dituzte. Ondoren, ekitaldi berezia egingo dute 20:30ean Elebeltz Topaguneari elkartasuna adieraziz.

Gauean Hilotz, Gabezia, The Garax eta Rukula taldeek eskainiko dituzte kontzertuak.

Egun osoko bonoaren prezioa 15 eurokoa izango da, eta lortu ahal izateko haiekin jarri beharreko da harremanetan sare sozialen bitartez. Kontzertuak soilik ikusi nahi dituenak, berriz, 6 euro ordaindu beharko ditu.



ZERGAK

Maiatzaren 16an amaituko da aurtengo zaborren tasa ordaintzeko epea

Zaborren aurtengo tasa ordaintzeko epea hemendik hiru asteira itxiko da; zehazki, maiatzaren 16an, astelehenez. Udalak jakinarazi duenez, egun hori bitartean ordaindu ez diren erreziboak "premiazko prozedura" erabilita eskatuko dira, dagoen errekarguarekin.

Zaborren aurtengo tasa ordaintzeko bi bide dituzte zergadunek: helbideratutako errezibo edo helbideratu gabekoen bidez. Lehenengoak maiatzaren 16an kargatuko dira bakoitzen kontu-korronteetan. Bigarrenen kasuan, banku, aurrezki kutxa edota Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean ordaindu ahalko dituzte herritarrek.

Ordain-gutuna jaso ez dutenek edota beste aleren baten beharra daukatenek bide bat baino gehiago erabil ditzakete horiek eskuratzeko. Joan daitezke Udaletxeko hirugarren solairuan dagoen zerga-bilketa bulegora, edo deitu dezakete 943 37 61 87 telefono zenbakira.

SAN PEDRO JAIK

Aukera ezazu jaietako kartela

2016ko San Pedro jaietarako bi hilabete eskas falta direla, Udalak aurtengo kartela zein den erabakitzeke lehiaketa abiatu du. Guztira, 22 lan aurkeztu dituzte. Proposamenak www.lasarte-oria.org webgunean ikusi daitezke

Maiatzaren 20a bitartean sanpedrojaiak@lasarteoriasa-rean.eus posta elektronikoa iritzia eman ahal izango da. Jaietako batzordeak azaldu duenez herritarrek pentsatzen dutena jakin nahi dute. Hala ere, nabarmendu dute azken hitza haiek izango dutela. Herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

LANAK

Donostia-Lasarte-Oria bidegorria itxita

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera eman duenez, gaur Donostia eta Lasarte-Oria batzen dituen bidegorria itxia egongo da arratsaldeko 17:00ak arte.

Foru Aldundia Gipuzkoako bidegorri sarean Artapen lanak egiten ari da egun hauetan. Atzo goizean hasi ziren Donostia-Lasarte-Oria bidegorriari dagozkien lanak, eta, aipatu legez, gaur amaitzea aurreikusten da.



Euskararen 9. Ma

40 ~~ordu~~ egun euskaraz

Irten armairutik!

Ez lotsatu! Egin harro euskaraz!

Urriaren 22 eta 23an Euskararen jaialdi handiak hartuko du Okendo plaza

Asteazkenean Euskarren 9. Maratoia aurkeztu zen Gaztelekuan. Aurten 30. urte beteko ditu eta besteak beste, edizio berezi honetako lelo eta zortzikotea aurkeztu ziren. Zortzikotean beterano eta berrien oreka mantendu da aurten. Joxe Mari Agirretzek, Agus Mujikak, Rebe-ka Garzesek eta Enara Ieregik lehenengoz oholtzan izango diren Oihana Fu Otaegiri, Mikel Izquierdori, Estitxu Garmendiari eta Joxe Mari Azkonobietari esperientzia berri honetan lagunduko diete.

Aurtengoa urte berezia dugu Lasarte-Orian. Euskalgin- tzako eragile eta elkarte askok urteurren borobilak betetzen dituzte, Euskararen Maratoiak berak 30 urte betetzen ditu. Adierazle hau oinarritzat hartuta, Lasarte-Orian azken urteetan euskarak izan duen bilakaerari erreparatu diote aurten antolatzaileek.

Atzera begirako bat eginaz,

nabarmena da euskararen ezagutzak herrian izan duen gorakada. Baina hizkuntza ezagutzeaz, erabilerari dagokionez oraindik hankamotz dago Lasarte-Oria. Ohitura, lotsa, "erraztasuna", aurreiritziak... auskalo zein arrazoiengatik, egunerokotasuneko hainbat egoeratan gaztelania lehenesten da.

Ahulgune hau ardatz hartu eta gainditzeko asmoz, ahalduntzea-

ren ikuspegitik bideratu nahi izan dute Euskararen 9. Maratoia. Gure gizartean berezko zentzua duen esamolde bat bere egin du Maratoiak bere leloa aukeratzean, 'Irten Armairutik!'

Homosexualitatearen aitortza publiko eta borondatezkoari erreferentzia egiteko erabiltzen den bezala, euskal hiztunok ere ahalduntze hori arlo linguistikora ekartzeko garaia da antolatzaileentzako, "konplexurik gabe, harrokeriarik gabe, gure buruaz eta gure hizkuntzaz harro".

Erronka eta ikerketa


Euskararen Maratoia 1986. urtean jaio zen, erronka batekin: 40 ordu baietz! Garai hartan Lasarte-Orian apustua zena aspaldi gainditu da. Baina oraindik euskararen norma-

lizazio prozesuan aurrera pausoak ematen jarraitu behar denez, erronka berri bat luzatu nahi die antolakuntzak herritarrei Euskararen Maratoitik Euskararen Eguna bitartean dauden 40 egunetan. "Euskalduna ahalmendu, euskahaldundu eta egunerokoan orain baino gehiago euskaraz egitera lagunduko duen erronka. Aldi berean, pertsonala eta kolektiboa den erronka. Mugak gainditu eta helburu berriak lortzera eramango gaituena". Gai izango ote gara lasarteoriatarak 40 egun euskaraz aritzeko?

Erronka hau bihotzarekin ez ezik, buruarekin ere egingo da. Izan ere, esperientzia neurtu eta ohiko hizkuntza ohituretan izan ditzakeen ondorioak aztertuko baita.



Maratoioia



Rebeka Garzes

Bai artista, bai atleta, oholtza gainean maratoi dexente daramatza eta.



Oihana Fu Otaegi

Hona zortzikoteko gaztea, abesten eta dantzan du ikaragarritzko artea!



Enara Iregi

Antzezle eta trikitilari trebea berriz ere oholtzan, erraz jarriko gaitu guztiok dantzan!



Joxe Mari Agirretxe

Beteranoetan beteranoena, maratoi guztietan eman du bere onena.



Joxe Mari Azkonobieta

Gizon serioa Joxe Mari... ez al zaigu harpa jotzen ari?




Estitxu Garmendia

Mila saltsatan abila, euskararen maratoiko perrexila!



Agustin Mujika

Maratoiko aitzindari, autengoan ere eutsiko ote dio erronkari?



Mikel Izquierdo

Solaskide aparta, barrea eragiten du abilezia galanta!

LABURRAK.-

Elorrio garaituz bukatu ditu liga eta denboraldia seniorren Euskal Ligako Lavie ZRT-Beltzakek

Garaipen batekin itxi du 2015-16 errugbi denboraldia senior mailako Euskal Ligan aritu den Lavie ZRT-Beltzakek. Elorrioren kontra jokatu zuen Michelinen, pasa den larunbatean. 29-17 irabazi zuen etxeko taldeak. Hainbat jokalaririk lasarteoriarrek hartu zuten parte norgehiagokan: David Vega, Julen Aristorena, Xabi Prieto, Andoni Amonarriz, Beñat Arroyo eta Xabier Rekondok, hain zuzen. Bestalde, Fran Puertasek Babyato Zarautz entrenatzeari utziko dio, sei denboraldi eta gero.



Zabalik dago Zabaleta auzoko III. Sorgin Krosean izena emateko epea

Hiru aste besterik ez dira falta Teresa sorgina Zabaleta auzora iritsi eta auzoko festei ekiteko. Urtero lez, ekitaldi mordoa presatatu dituzte antolatzaileek, kirolarien egutegian ohiko bilakatu den Sorgin Krosa barne. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da, ekainaren 4an, larunbatekin jokatu da. Lasterketa horretan izena eman nahi dutenek egin dezakete jada, Artizar tabernan zein Zabaleta auzoko dendan. Doakoa da inskripzioa. Antonio Blas plazan bertan ere egin daiteke.

Iñigo Altuna hirugarren Lazkaon



Podiumera aupatu zen Iñigo Altuna Bazpi taldeko juniorra pasa den asteburuan, Lazkaon. Hirugarren postuan helmugaratu zen, 2.01.24ko denbora eginez. Hamabosgarren izan zen Jokin Alberdi, eta 29. Luken Carbayeda. Taldearen lan onak ere izan zuten saria: hirugarren onena izan

zen Buruntzazpi, taldekako sailkapenean. Asier Pozo infantilak, berriz, meritu handiko bigarren postua erdietsi zuen Gipuzkoako txapelketan, Oñatin. Tropeleko kide baten eroriko bat zela kausa moztuta eta hasierako postuetatik urrun geratu zen txirriindulari gaztea hasieran, baina egoerari buelta eman eta ihesaldian sartu ondotik, bigarrena izan zen sprint-ean.

LOKEko gimnastak ederki Bergaran

Gipuzkoako txapelketara sailkatu dira Bergaran jokatuako Eskolartekoa A eta Amateur txapelketako 2. fasean aritu ziren LOKEko gimnasta ia guztiak. Alazne Gonzalez jubenila, Aizpea Arroyo seniorra eta Jubenil A eta Kadete B taldeak lortu dute txartela bihar jokatu den txapelketarako. Ibarako kiroldegian ariko dira horiek denak, egun osoan zehar.

IGERIKETA.-

Lehiaketetan murgilduta

Hainbat proba jokatu dituzte Buruntzaldea IKTko kideek

Probaz, proba, igerilekuz igerileku dabilta Buruntzaldea IKTko igerilariak, astea joan eta astea etorri. Asteburu honetan ere hainbat lehiaketetan hartuko dute parte kategoriatan desberdinetan igerian ari diren neska-mutiek. Gipuzkoarekin ariko dira jubenil eta infantil mailako hiru; alebinek eta benjaminen, berriz, Tolosako Usabalen dute zita.



Villamediana, Berasarte eta Arzalluz Gipuzkoarekin ariko dira asteburuan, Tarbesen.

TXINTXARRI

Tarbesen (Frantzia) lehiatuko dira Janire Berasarte jubenila eta Nahia Jie Villamediana zein Irati Arzalluz infantilak, asteburu honetan, Gipuzkoako selekzioarekin. '26es Nautiques de Tarbes' izeneko proban ariko dira, hainbat estilo eta distantzian.

Arzalluzek 50, 100 eta 200 libre probak egingo ditu. Villamedianak, berriz, 50, 100 eta 200 bizkarrekoak. Berasartek, azkenik, distantzia luzeagoetako batzuk jokatu ditu: 400 eta 800 librekoak, hain zuzen.

Alebinak primeran Ordizian

Lasarte-Oriara bueltan uzta oparua ekarri zuten Buruntzaldea IKTko alebinek: marka bikainak erdiesteaz gain, taldeko errekor berriak eta Euskal Herri zein Espainiako txapelketarako gutxieneko denbora gehiago erdietsi zituzten. Iragan larunbateko jardunaldi

horrekin itxi dute liga kategoriatan horretako neska-mutiek.

Aipatzekoak dira, besteak beste, Unai G. Somovillak 400 libreetan lortutako garaipena, 5.14,26ko denbora eginda, eta Leire Martinen nagusitasuna proba eta distantzia horretan. 4.52,07an geratu zuen erlojua, eta alebin mailako Espainiako-rako gutxienekoa lortu.

Borja Apeztegia prestatzailearen hitzetan, ligari "etekin handia" atera diote alebinek: "Aurreko denboraldian jokatuak baino esanguratsua goak diren hainbat probatan maila altua erakutsi dute, eta, etorkizunera begira, lan hobea egin ahalko dugu gaztetxoekin, euren garapenari dagokionean". Emaitzen aldetik ere hobekuntza eman dela dio Apeztegiak, igerilari gehienek gutxieneko markak lortu dituztelako Euskal Herriko txapelketarako, eta Leire Martinen kasuan, Espainiakoetarako.

"Jokatzeke ditugun txapelketetan gauza gehiago lor ditzaketela uste dugu; beraz, animorik handienak lanean jarraitzeko!", gaineratu du.

Etzi Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan hartuko dute parte alebinek, Tolosako Usabal kiroldegian, bi jardunalditan: goizekoa 10:00etan hasiko da, eta 16:30ean arratsaldekoa.

Benjaminak ere, Tolosan

Bihar dute hitzordua Buruntzaldea IKTko kide gaztetxoekin, Tolosako Usabalen baita ere. 'Igerilari osoa' proban hartuko dute parte, egun osoan zehar. Goizeko jardunaldiak hamarretan hasiko dira, eta lau t'erdietan arratsaldekoa.

50 eta 100 tximeleta probak egingo dituzte goizean zehar, eta bular zein libre estiloetako 100 metroko arratsaldean. Igerilari gisa gaztetxoak formatzen jarraitzea dute helburu entrenatzaileek.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 14

Michelin, 11:00etan

Ostadar SKT - Añorga KE

Kadeteen Ohorezko maila, 30. jardunaldia.

Hondartza, Hondarribia, 11:00etan

Hondarribia FE - Ostadar SKT

Infantilen Ohorezko maila,

txapeladunen fasea, 13. jardunaldia.

Gal, Irun, 12:15ean

Real Union SAD - Ostadar SKT

Errendimenduko infantil txikiak, kopa, 9. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE

Igo jubenila, igoera fasea,

18. jardunaldia.

Martutene, Donostia, 15:30ean

Martutene - Ostadar SKT

Jubenilen Ohorezko maila,

30. jardunaldia.

Michelin, 17:30ean

Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE

Erregionalen Ohorezko maila,

33. jardunaldia.

Unbe, Eibar, 17:30ean

Eibar SAD - Ostadar SKT

Emakumezkoen lurralde maila,

igoera fasea,

18. jardunaldia.

Igandea 15

Rezola, Añorga, 17:00etan

Antigua Luberrri KE - Texas

Erregionalen Igo maila, Kopa,

18. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 13

Bergarako udal pilotalekua, 19:30ean

Herriarteko txapelketako final

hamaseirenetako itzuliko neurketak

jokatuko dira. Bergara, Lasarte-

Oriaren kontra. 2-1 aurreratu dira

kanporaketan bergararrak.

SASKIBALOA

Larunbata 14

Udal Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar SKT - Miramar Hondarribia

Errendimenduko kadete neska,

Udaberri txapelketa, 2. jardunaldia.

Igandea 15

Don Bosco kiroldegia, Olereta, 11:45ean

Beraun Bera Oiarso - Ostadar SKT

Partizipazioko kadete neska, 2. jard.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 14

Herriko txapelketa,

playoffak

Udal Kiroldegia, 15:00etan

El Punto - Izkiña

Finalerdiak, itzuliko norgehiagoka.

Udal Kiroldegia, 16:00etan

TSST - Txindoki

Finalerdiak, itzuliko norgehiagoka.

Ibarra kiroldegia, Aretxabaleta, 12:30ean

Cecilia Kebab Lasarte Ostadar-

Power Rangers FC

Gipuzkoako 2. maila,

igoerarako kanporaketak, finala.

Ibarra Kiroldegia, Aretxabaleta, 19:00etan

Pescados Ferreres - ISU Leihoak

Gipuzkoako Igo maila,

igoerarako kanporaketak, finala.

PIRAGUISMOA

Ostirala 13/Igandea 15

Liptovsky, Eslovakia

Maialen Chourraut herritarrek

Europako txapelketa jokatu du,

emakumezkoen KI modalitatean.

TRIATLOIA

Larunbata 14

Hondarribia, 15:00etan

Trinko Lasarte-Oriako triatloi

taldeko zenbait kidek Hondarribiako

triatloia jokatu dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 14

Urretxu-Zumarraga, 8:30ean

Hainbat herritarrek hartuko dute

parte Urola Garaia BTT maratoian.

Agenda

Larunbata 14, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Umorea eta bertsoa

'Berritsuketan bertsoan' Udaberriko bertso saioa eskainiko da. Bakarrizketak izango dira protagonistak. Intza Alkainen, Martin Ansoren, Mikel Bermejoren eta Mailu Arrutiren hausnarketa umoretsuak entzun ahalko dira. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña izango dira bertsoan eta gai jartzaile lanetan, Bea Egizabal. Sarrera, 5,50 euro.

Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideen eskutik eta kantaldia.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Larunbata 14

14:30ean, Bertso bazkari beganoaz gozatzeko aukera. Bertsolariak: Unai Muñoa, Ainhoa Agirreazaldegia eta Izarne Zelaia.

17:30ean, Tony Magoaren emanaldia.

19:00etan, Pelax.

20:00etan, Ekitaldi berezia eta pintxo jana.

Ondoren, kontzertuak:

Hilotz

Gabezia

The Garx

Rukula

Egun osoko bonoa, 15 euro; kontzertuetara sarrera, 6 euro.

Dantza Topaketa

SASOETA IKASTETXEA

Ostirala 13-Igandea 15

Euskal Herriko Kontakt Inpro Elkartek antolatuta, III. Topaketa izango da. Ikastaroak eta jam sesioak egongo dira.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Larunbata 14, 00:30ean

Dantza festa izango da.

OKENDO PLAZA

Igandea 15, 13:00etan

Maidar Oiartzabelek zuzendutako performancea eskainiko dute.

Azoka

SIGLO 20

Igandea 15, 11:00etatik 20:00etara

Bigarren eskuko artikuluak eta artisautza. Giro ederra eta musika ona Paolo Soloren eskutik.

Lasarte-Oria

Udaberri festa

JUAN XXIII PLAZA ETA ZUMABURUKO ELIZAKO PLAZAN

Gaur, ostirala 13, 18:00etatik 21:00etara Etxeko txikientzat puzgarriak.

LASARTE-ORIA

Gaur, ostirala 13

Egun osoan zehar, deskontuak eta eskaintzak eta haurren Marrazki erakusketako lehiaketa Aterpea Merkatarik elkarteko denda eta tabernetan.

18:00etatik 21:00etara, Kalejira Dinbi Bandak girotua.

Eguraldi txarra eginez gero, puzgarriak Loidi-Barren pilotalekuan izango lirarteko.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala 13, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen bideo forum atalean, Pedro Almodovarren azken lana den 'Julietta' eskainiko dute. Sarrera, 5,50 euro. Ostean, solasaldia izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 15, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'El libro de la selva' filma 3Dn eskainiko dute. Sarrera, 4,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 15, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Julietta' filma ikusteko aukera berria izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Musika

SIGLO 20

Gaur, ostirala 13

Musika elektronikoa Txessen eskutik.

Larunbata 14

Deep & House saioa Furoniaren eskutik.

Elebeltz Elkartasun Jaialdia

LASARTE-ORIA

Larunbata 14, 11:00etan

Xumela korua eta Porrotxekin gazteen kantujira.

OKENDO PLAZA

Larunbata 14, 13:00etan

Konpostelako Solfa koruari ongietorria

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, maiatzaren 30ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkaziaz da eta odol falta dago!

Italiara bidaiak

Uda honetan Roma, Florentzia... aldera modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonen osatutako taldea sortu nahiko nuke. Animazaitze! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Eskutitza

Erraustegiari buruzko egiak azalarazten

Asteburu honetan Erraustegiaren Aurkako Mugimendua Gipuzkoa osoa buzoneatzera doa. 600 lagunek hartuko dutela parte aurreikusten dugu.

Mobilizazio zabal honen bitartez, erraustegiaren arduradun politikoei mezu argi bat bidali nahi diegu: komunikabide handietan, publiko zein pribatuetan, ezarria duten kontrol informatiboaren gaintetik, ezkutatu nahi dituzten egiak Gipuzkoako txoko guztietaraino eramango ditugu. Beraiek herritarrei ezkututzen dietena azalarazteko gai garela demostratuko dugu. Batzuek entzun nahi ez dituzten egiak eta ebidentziak herritar guztien-gana, banan-bana, iritsiko dira.

Buzoneatuko dugun esku-orrian hiru mezu zabalduko ditugu:

- Erraustegiaren inguruan minbizia izateko arriskua areagotu egiten da. Erraustegiaren inguruan minbizi kasu gehiago pairatzeko arriskua frogatu da. Dozenaka ikerketa daude, baina bat aipatzearen: Carlos III Unibertsitatea (2013). Minbiziak ez du bereizketarik egiten ez klase sozial,

arrazo edo sexuen artean, ezta alderdi politikoen boto-emaitzen artean ere.

- Gipuzkoan inoiz egon den lapurreta ekonomiko handienaren aurrean gaude. Izan ere, aurreikuspen guztiak gairiditu ditu erraustegiaren kostuak. Hasieran 300 milioi euro kostua izango zuela iragarri arren, orain jakin ahal izan dugu kopuru hori 1.200 miliotara iritsiko dela. Eta horietatik %10, "garbi", enpresa pribatu baten akzionistek eramango dute. Eta zeinek ordainduko du? Herritarrok, gure tasen eta zergen bitartez. Hau onartezina da!

- Zabortegiak ez dira konponbidea. Ez Epelen, ez Lapatzen, ezta Kantabriaren ere. Soluzioa gero eta hondakin gutxiago sortzea da, ahalik eta baliabide gehienak berreskuratzea eta bakoitzak bere etxean hondakinak berezituak jasotzea. Badaude herri eta eskualde asko Gipuzkoan hori dena egitea posible dela demostratzen ari direnak, udallean alderdi politiko bat edo bestea egon (Debagoiena, adibidez).

Bide batez, maiatzaren 29rako antolatu den giza-katearen deialdia gogoratuko dugu. Jakina den bezala, giza-kate batek Onkologikoa eta Foru Aldundia lotuko ditu eta esku-orri honen bitartez ere gipuzkoar guztioi parte hartzeko deia egingo diegu.

Asteburu honetan Gipuzkoako etxe guztietara iritsiko gara gipuzkoar guztion osasunaren eta patrikaren kontra doan egitasmo hau gelditu daitekeela eta geldituko dugula ozen adierazteko.

Lasarte-Oria ere banaketarekin bat egiteko asmoa dugu, batz bestea 6.000 esku-orri. Inork lagundu nahi badu, ager dadila larunbatean, 11:00ak aldera, Okendo plazan.

BURUA DUENAK EZ DU ERRAUSTEGIRIK NAHI BERE HERRIAN, ETA BIHOTZA DUENAK EZ DU BESTE INOREN HERRIAN NAHI

AIRE GARBIA PLATAFORMA

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintzarri@txintzarri.eus

Energia aurreztearen balioa

Energiaren Kontsumo Jasangarriaren astea aurkeztu dute

Energia era jasangarrian kontsumitzea ez da utopia. Aholkuak eta alternatibak eskaintze bidean, Lasarte-Oriako Udalak 'Energiaren Kontsumo Jasangarriaren Astea' antolatuko du, Usurbilgo Lanbide Eskolarekin batera. Ikasteko aukera paregabea izango da astelehenetik larunbatera.

TXINTXARRI

Usurbilgo Lanbide Eskolako Lasarte-Oriako Udalarekin batera Energiaren Kontsumo Jasangarriaren astea antolatu du datorren astelehenetik aurrera.

Jardunaldi "garrantzitsu eta interesgarriak" dira antolatzaileen ustez, "gaiak berak duen interesagatik batetik, eta herri-tarregan duen eraginarengatik bestetik".

Esaterako, lasarteoriatar askok faktura elektrikoari buruzko salaketa eta kezka ugari izan dituztela azpimarratu du alkate Jesus Zaballosek.

Eraikinak hizpide

Asteleheneko 17:00etan Manuel Lekuona kultur etxean "eraikinetako fatxaden isolatze eta birgaitzea" izeneko hitzaldia entzun ahal izango da.

Halaber, Usurbilgo Lanbide eskolako zuzendariorde Oier Aranzabalek Enegur eraikin berria aurkeztuko du. Egurrez egindakoa da, eraginkortasun energetikoari garrantzia handia ematen dioten irizpideekin.

Landaberriko DBH4ko ikasleek ere Energiaren Kontsumo Jasangarriaren Astearen parte hartuko dute; asteartean Usurbilgo Lanbide Eskola bisitatuko baitute. Energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren inguruko informazioa jaso eta orain arte garatutako proiektuak aztertuko dituzte.

Larunbatean Antonio Mercero aretoan erakusgai jarriko dituzte ikasleek bertan ateratako argazkiak.

Gure etxean nola jokatu?

Faktura elektrikoari buruzko hitzaldia emango du Goiener energia berriztagarrien sorkun-

tza eta erosle kooperatibako kide Alex Lopezek. Gipuzkoako beste herri batzuetan ere eman dituzte antzekoak, eta helburua da hileroko jasotzen ditugun esku-titz horiek hobeto ulertu ahal izatea.

Bestalde Udaleko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan (KIUB) eskaintzen diren informazio zerbitzuak azalduko dituzte teknikariek.

Gaur egun Lasarte-Oriako Udaletxeko bulegoetan eskura daitezkeen informazio eta aholku zerbitzuak ezagutera eman nahi dituzte ekintza honekin.

Bestalde, asteazkenean, elektrizitatea eta berogailua modu eraginkor batean erabiltzeko aholkuak emango dituzte Luis Mari Carballo eta Gorka Apaolazak.

Azaldu dutenez, "energia eta dirua aurreztu daiteke", beti ere, erabilera egokiak aplikatuz.

Enegur

Eraiki berri duten kontsumo baxuko modulu berriztagarria aurkeztuko dute Usurbilgo Lanbide Eskolako kideek ostiralean.



Usurbilgo Lanbide Eskolako eta Udal ordezkariak Energia Astearen aurkezpenean.

Goizeko 9:30ean hasiko da ekitaldi hori. Patxi Vaquerizo eskolako zuzendariak hartuko ditu hitza lehenik. Lanbide heziketako sailburuorde Jorge Arevalok eta Eskolako Eraginkortasun Energetikoko Saileko Arduradun Oihana Dorronsorok ere euren Enegur moduloari buruzko iritzia emango dute.

Ingurugiroari lotutako elkarte askotako ordezkariak ere proiektuak ekarriko dituen berrikuntzei buruz arituko dira.

Energiaren feria

Larunbatean ospatuko dute egun handia. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako

'Energiaren feria' prestatuko dute Okendo plazan.

Eskolan garatutako zenbait proiektu erakutsiko dituzte Okendo plazan. Halaber, Antonio Mercero erakusketa gelan asteartean jasotako Landaberriko ikasleen argazkiak erakusgai jarriko dituzte.

Eragileen arteko elkarlana

Antolatzaileek bat egin dute euren arteko harremana eta elkarlana "egokia" izan dela aitortzean.

Lasarte-Oriako eta Gipuzkoako etxebizitza askok hobekuntza ugari egin ahal dituzte energiaren kontsumo jasangarriaren arloan, eta espero dute jardunaldi hauek baliagarriak izatea.

Lasarte - Oria

2016ko UDABERRIKO FESTA

MAIATZAK 13 OSTIRALA

Ekintzak

Beherapenak
eta
eskaintzak

- PUZGARRIAK JUAN XIII PLAZAN 18:00etatik - 21:00etara (euria egiten badu Loidi Barren Frontoian egingo da).
- PUZGARRIAK ZUMABURU ELIZA PLAZAN 18:00etatik - 21:00etara (euria egiten badu Loidi Barren Frontoian egingo da).
- KALEJIRA DINBIBANDA BATUKADAK GIROTUA 19:00etatik - 20:00etara

